



Andoni Kortajarena



SASKI NASKI

Angulak doanean jateko era



KORTAJARENA'TAR ANDONI

Urteetan aurreratua zegoan senar-emazte bikote batek, urte zaar-gauean txitxardiñak jateko oitura zuan, baiña azken urteetan eskaparatean ikusiz konformatzen ziran, bere sal-neurria ordaintzeko modurik ez zutelako. Nola nai ere, emazteak barruan zeraman kezka kentzeko nola edo alako gogoeta asko egiten zituan, baiña eziñezkoak gertatzen ziran, balio zuten dirutza ordaintzea.

Urte-zaar goizean, "saldoan", gizon-erropak erdi-prezioan saltzen ari zirala denda batean ikusirik, bi aldiz pentsatu gabe, ordu pare batez errenkan zai egon ondoren barruratu zanean, bere gizonaren neurrikoak ziran jaka eta galtzak ikusi zituan, eta naiz kolorez eta joskeraz azken modakoak izan, erosi egin zituan. Ondoren arrandegira joan eta kilo erdi bat angula beltzak erosi eta etxeratu zanean, gizonak ez ikusteko,



leku ezkutu batean gorde zituan.

Afaltzeko garaia iritxi zanean, zapi zuri batean ongi tolestatuak zeuzkan angulak erakutsi zizkion senarrari. Onek ezin zuan siñistu bere begiak ikusten zutena egia izan zitekeanik, eta, alako batean onela mintzatu zan. *"Baiña, benetako angulak al dira auek eta ala baldin bá dira, nola demontre moldatu zera urrezko-dirua balio duten arraitxoak etxeratzeko"*

Emazteak, legun-legun erantzun zion. *"Zaude lasai eta patxara ederrean jan ditzagun ain atsegin zaizkizun txitxardiñak, bereziki gaurko egunean, eta, gaiñera, jakin ezazu debalde gertatu dirala"*.

Senarrak: *"Nola daiteke ori egia izatea?"*

Emazteak, arro-arro, era ontan erantzun zion: *"Begira, gaur goizean denda batean gizon-erropak erdi-prezioan saltzen ari zirala ikusi dut eta bertaratu eta zuretzako, premiazko zenituan galtzak eta txaketa erosi ditut, eta erosketa ortan aurreratu dudanarekin angulak erosi ditut. Beraz, doanean gertatu zaizkit angulak"*.

Apariondoan, ia-ia mintxuria egin zitzaion gizonari, kuadro aundiz ornitutako txaketa eta teilla koloreko galtza estuak emazteak erakutsi zizkionean. Bere onera etorri zanean, onela mintzatu zitzaion etxekoandreari: *"Baiña, kolore nabarmeneko txaketa eta galtza estu oiekin jantzita ikusi nai al nauzu? Burua galdu egin al duzu edo...?"*.

Emazteak, astiro-astiro itz egiñez, onela erantzun zion: *"Begira, aurten ere Benidorera joango gera eta an ibiltzen diran atzerritarren artean oiek jantzita kaleratzen zeranean, iñor ez da arrituko eta, era berean, zu ere oitutzen joango zera eta andik aurrera normalak irudituko zaizkuzu soñeko oiek. Bestalde, aolkulariak beti esaten ari zaizkigu, ez diogula ezarri bear urteak bizitzari, baizik bizia eman urteei eta ez zaartzeko gazte sentzitzen jarraitu bear dugula. Aolku oiei jarraituz, itxurazkoa da barrutik gazte izan nai ba'dugu, kanpo aldetik ere gazteen eran jantzi bearko gerala. Ez al zaizu ala iruditzen?"*.

